

Lagun agurgarria,

Honekin batera, sortzen ari garen **Lantalde bat** aurkeztu eta bertan parte hartzera gonbidatu nahi dizut. Azpeitiko ezaguera eta azkeneko urteetan udalerriko garapenaren aldeko lana egin duten eragileak osaturiko organo bat da, non sektore guztiak ordezkaturik dauden. Eragile horien artean, zu aukeratu zaitugu, zure ibilbidea eta udalerriaren onura komuna bilatzeko gaitasuna baloratzuz.

Guztiok dakigu egungo egoera zaila dela. Baina, aldi berean, aukeraz beteriko unea delakoan gaude. Izan ere, **gure udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatzeko aukera aparta dugu**. Eta hau lortzeko bide bakarra **iraunkortasunaren aldeko apustua sendotzea dela** ziur gaude.

Horretarako, bide hori definitzen lagunduko digun **Azpeitia 2020** prozesu berriaren lehenengo pausuak ematen hasi gara. Azpeitiko egungo **behar eta ahulezi nagusienei aurre egiteko ekintzak jasoko dituen Plan bat egiteko asmoa dugu**. Oraingo honetan, eta udalerriko egoera kontuan edukita, Plan honek **iraunkortasuna modu integral batean jorratuko duela azpimarratu beharrekoa da**.

Hasteko, egoera zehazki zein den jakiteko, **Diagnostiko** bat egingo dugu. Bertan identifikatuko diren lehentasunezko eremuetan oinarrituta, 2020 urtera begira, **Udal Estrategia** formulatuko dugu. Eta azkenik, hortik abiatuta, 2013-2020 **Ekintza Plana** definituko dugu.

Hemendik aurrera, eta prozesu osoan zehar, **udalerriko etorkizunerako ikuspegi globala** duten eragile sozial eta ekonomikoen parte hartzea guztiz garrantzitsua izango da, lantalde honen bitartez artikulatuko direnak.

Datorren **otsailaren 14an**, arratsaldeko **7etan** bilera bat ospatuko dugu non prozesu honen nondik norakoak eta lantaldea honek nola funtzionatuko duen azalduko dugun. Horrela, emango diren hurrengo pausuak ezagutzeaz gain, gainontzeko eragileak ezagutu eta bertan parte hartzea gustatuko litzaizukeen baloratu ahal izango duzu. Bilerak gutxi gora behera, ordu t'erdi bateko iraupena izango du.

Aldez aurretik zure interesa eta parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea